

# → ELTXO TIGREAREN PREBENTZIOA (Aedes albopictus)



## EZAUGARRIAK

Eltxo beltza eta txikia da (5 mm inguru). Buruan eta toraxean duen marra zuriatik ezagutzen da.

**Espezie hau hiritarra da gehienbat. Batez ere egunez aritzen da, eta leku ilunetan ezkututzen da.**

Eragozpen handiak sortzen ditu pertsonengan, bere zizta-dengatik gehienbat; mingarriak izan daitezke, eta erreakzio bizia eragin.

**Dengea, Zika edo chikungunya bezalako gaixotasunak eragiten dituzten birusak transmititu ditzake.** Beraz, funtsezkoa da eltxo hau kontrolatzea.



## NOLA PREBENITU BERE PRESENTZIA?

Prebentzioa da gakoa, eltxoaren ugalketa eragozteko. Eltxoek ur kantitate txikia behar dute arrautzak erruteko; horregatik, beharrezkoa da aldizka miaketak egitea eta ontziak kentzea:



Saihestu ur-metaketa drainatze-uretan (kainuzuloak eta estoldak) eta teilatu-hodietan.



Estali etengabe ura atxikita geratzen den zuloak zoru pribatu eta publikoetan.



Hustu, astean bitan, ura metatzen duten ontziak: lorontzien azpiko platerak, pitxerrak, kuboak, jostailuak, plastikozko igerilekuak, etab.



Berritu, 2 edo 3 egunean behin, gure animalien edontziak.



Isuri ura hustubideetan astean behin gutxienez, ur-geldiak saihesteko.




Eltxo-sareak leihoetan, deposituetan, ontzietan eta abar erabiliz gero, saihestu egiten da eltxoak sartzea eta arrautzak errutea.

Herritarren eta udal-zerbitzuen (garbiketa, komunikazioa, hirigintza, obrak, urak...) arteko lankidetzaren funtsezkoa da eltxo tigreen hedapena geldiarazteko.

## NOLA SAIHESTU ELTXOAREN ZIZTADA?

- Mahuka luzeko arropa, praka luzeak janzteak eta oinetako itxiak erabiltzea.
- Eltxoa uxatzeko baimendutako produktuak erabiltzea, adibidez DEET, IR3535 edo picaridina.
- Umeen eta emakume haurdunen kasuan, neurri fisikoak lehenetsi behar dira (eltxo-sareak).



## ZER EGIN ZIZTATZEN BAGAITU?

- **Garbitu ondo ziztadaren eremua urarekin eta xaboiarekin.**
  - **Ez da hazka egin behar infektatu ez dadin.**
  - **Hotza aplikatu inflamazioa geldiarazteko eta azkura arintzeko.**
- Batzuetan biziagoak izan daitezke erreakzioak, eta beharrezkoa izan daiteke osasun-arloko profesional bati kontsultatzea.



## GARRANTZIKOA

Laguniezaguzu bere banaketa ezagutzen. Eltxo tigre bat ikusten baduzu, atera argazki bat eta bidali app honetara:

<http://www.mosquitoalert.com/>



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD

NEIKER  
MEMBER OF  
BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE